

LAGUN IZOZTUA

JOSEBA SARRIONANDIA



elkar



Hiztegitxo

Hobeto irakurtzen laguntzeko

ababor 'itsasontziaren ezkeraldea'	« Ababorrera egin genuen eta Harriandi paretik joan ginen (...) haizea arnastuz eta ezpainetan bilduriko gatzak lamikatuz.»	(190)
abaildu 'etzana, kurtsiboa'	«...Arianeren agur gutunari, letra txiki, borobil, aurrerantz abaildu berberaz izkiriaria, boligrafo berberaz agian...»	(404)
abisal 'sakon-sakona'	«'Baina hura duela hogeita zazpi urte gertatu zen, Maribel, munduaren hasiera abisalean .'»	(86)
abixoi 'arrain mota'	«Eta noizean behin goitik behera jauziko dira kaiok (...) fardel galduak legez, eta batzuetan abixoi txiki batekin...»	(230)
agertuan 'agerian'	« Agertuan zituen Goienkaleko mamuak, desagertu zen nasako taberna.»	(405)
agitu 'gertatu, jazo'	«Itsasertza urtzaldian izango da oraindik eta behin eta berriro entzungo dira eztandak, ez urrunegi bataila latza agituko balitz bezala.»	(286)
ahalean 'hemenan, esku'	«'Zer gertatu da? Lagunduko dizut, ene ahalean bada. Zer duzu?»	(253)
ahokadura 'aklopamendua, enkajea'	«'Teoria horren oinarrietako bat kontinenteen arteko ahokadura da.»	(281)
ai aiumaka 'hasperenka'	«Neskaren bular ilunek esne irakinaren usaina zuten, Ai aiumaka hasi zen berehala, zaldi gainean trostan doana bezala mugituz eta ai aiumaka.»	(372)
aienatu 'desagertu'	«Eta behar hori, gizakia mundura hain goiz eta hain babesgabe jaiotzen delako dela, eta maitasun behar hori ez dela egundo aienatuko .»	(303)
aihen 'fina, luzea'	«...amamak arrosarioa bere aihen eskuetan hartu eta bihiak analogikoki askatzen zituela.»	(257)
aihen 'itsasontziak lotzeko koska'	«'Zer,' esan zuen agureak, ' aihenetan ondo amarratuta utzi dituzue enbarkazioak?」	(155)
aintza 'gloria'	«...ikuslerik gabe, auparik gabe, aintzarik gabe, garaipenerako irrika handirik gabe, galtzapenerako beldur handirik gabe...»	(233)
aio-aiomaka 'animozko oihuak'	«...idiek aittitte akuiluz eta aio-aiomaka aldamenetik gidari zutela.»	(101)
aiots 'auhena, kexuzko oihua'	«Katu zaurituaren moduan egin zuen aiots baten batek kanpoan eta ta ta ta ta errafagak entzun ziren berriro luzaroan.»	(352)
aitama 'aita eta ama, gurasoak'	«Batzuetan erdi ezkutuan ibili behar izaten zuten, lehorretik aitamen deiadarrak entzun behar ez izateko...»	(68)
aitatara egin 'umeak aitaren antza hartu'	«On hutsa da gainera eta loti samarra. Honetan ez dakit nortara egin duen: aitatara edo amatara, biok zein baino zein ibiltzen garelako terreno horretan.»	(92)
albait 'ahal zuen guztietan'	«Berak errona edaten zuen albait .»	(171)
albait -en 'ahalik eta -en'	«Goio izoztu egin da. Ea albait arinen bisitatu ahal duzun.»	(15)
alotropiko 'forma fisikoan agertzen dena'	«'Oxigenoaren alotropikoa .' 'Zer da alotropikoa?」	(394)
altzo 'sabel ingurua'	«Belarrietatik eskegi dizkidate inflazioak, autobideko hilak (...) eta enparauak, harik eta irratia amatatu eta liburua altzoan hartu dudana arte.»	(28)
amaraun 'aramu sarea'	«...baina Ikastetxeko harrisia eskalatzen hasi ginenean amaraunean erorita geundela ohartu ginen...»	(382)
amildu 'goitik behera erori'	«...entzun dut distorsionaturik, luzaturik, bigunki amiltzen naizen artean.»	(48)
amniotiko 'umekia inguratzen duena'	«...Managua hiri barreiatuko kaleetan barrena ibili naiz, zalantzan, likido amniotikoan murgilduta bezala.»	(29)
amulatu 'estutu, branka estutu'	«Enbarkazioak astiro jarraituko du pal pal, baina amulatuz , geroago eta gehiago diren izotz tontorrek saihestu beharrez.»	(279)

amultsu 'maitekorra, maitasunezkoa'	«Eta aireportuetan eta hegazkinetan entzuten diren moduko boz eme amultsua da.»	(61)
anotopiko 'lekuz kanpo bizi dena'	«'Anakroniko hitzaren antzera esaten da anotopikoa ,' esan dit (...) 'anakronikoa denboraz kanpo bizi den bezala, anotopikoa lekuz kanpo bizi da. Hemen zaudela han bizitzea.»	(56)
andana 'multzo handitan'	«Egun batez, soldaduak harantz ezik, bestalderantz gehiago hasi ziren pasatzen, zaurituak ere andanaka zekartzatela...»	(102)
antzeman 'igarri, nabaritu, sumatu'	«Bere berbazaku hutsetik, antzeman ezindako keinu batzuk dira bere erretolika guztia.»	(66)
apar 'bitsa'	«Enbarkazioak ura branka bularraz jo eta erdibituko du (...) bitsa altxatuko du eta apar kizkurtu horrek (...) lorratz zurixka utziko du atzean.»	(158)
apatx 'oin zapala, azal zabalekoa'	«Eta izarak, haizearen apatxek astindua, bi makilaren artean lotutako uhina ematen du.»	(27)
apatx 'apoa, animalien behatz	«...atea kontuz itxita, Pauso Galduen Galerian idiaren apatx hotsa eginez.»	(219)
artz 'garbia'	«...euren burusoil dirdiranteak, euren begi borobil eta amultsuak, euren bibote luzeak, euren gorputz astun artz a.»	(280)
arestiko 'lehenagoko, duela gutxiko'	«... arestiko basamortu orain bai belarrez joria miresteke, behi saldoak muuuka larrean, eta kontaezinbesteko izarrak ere miresteke...»	(320)
ari arian 'jarraian, etengabe'	«Baina udaren hondarrak ez ezik, neguaren letaginak helduko dira ari arian , eta letaginak ez dira denak itsusiak izango.»	(329)
arkada 'untzien zama lekua'	«Ez zen portura ontzirik arkadak beterik heltzen.»	(367)
arkanbele 'kakalardo (intsektu adarduna)'	«...gauzak nahiko absurduak ziren berez, arkanbeleak esate baterako, eta kakalardo haietako bat hartu zuen eskuan...»	(105)
arkano gauza sekretua /etorkizuna igartzeko kart	«'Ondo hiltzeko bidea bilatu behar da...' esanen diozu, gogora arkanoen moduan helduko zaizkizun hitzak esanez.»	(184)
aro 'sasoia, giroa'	«Eta egia da aroa aldatzen ari dela, iluntze orduetan izarrak ikusiko dituzue, gauaren luzaketa igorritz.»	(329)
arrabol 'kulunkaldia, balantzeoa'	«...itzultzean ikusiko duzue branka eta popa zabuka ari direla, soka batzuk apurtu dituela, pausadirik gabeko arrabolak eragindako tentsioagatik.»	(327)
arraildura 'arrakala, pitzadura'	«Ibaiko islara itzultzean, harresi erdi eroriaren arrailduran iguana bat ikusi dut (...) hazizurriak dituela eta gargarak egiten.»	(23)
arranditsu 'harrokeriazkoa, ikusgarria'	«Mansio aristokratiko handiak, arranditsuak batzuk, umilagoak beste batzuk, baina hotzak denak.»	(277)
arratsaldepe 'arrastiria, ilunsentia'	«Bunkerraren ondoko harrietan eseri eta arratsaldepean , itsasoa han behean dardaraka ikusten zuen artean...»	(38)
arrelepo 'arretxikoan, arretriko'	«...Juan Bautista gilaren gainean arrelepo jarrita hasi zen, espatula erabiliz, zulo txikiak eta zirrikituak betetzen.»	(401)
arroila 'ubidea, karkaba, ildo modukoa'	«...harkaitzak ikusiko dira noizean behin, eta ura mendi garaietatik itsasora isurtzen duten errekek ebakirik arroilak .»	(198)
artega 'urduri, ezinegonez'	«Uda goiza izan arren, lainotsua eta goibela zen eta Goio artega ibili zen hilobien artetik...»	(33)
asundu 'azidoa, azkura eragiten duena'	«...Arantxaren begi asunduen abegikortasuna...»	(66)
atabal 'danbortxo'	«Eta entzunen duzu hego-sortaldeko haizearen txilioa ertz guztien kontra, eta euriaren atabal hotsa...»	(200)
ataka 'bitartea, pasabide estua'	«Errekara bidean, hazi egiten dira amildegi arteko harkaitzak, zitaidu horma garai arteko ataka sakonak. Han joanen zarete denak okerka, bidea ezin arteztuz.»	(117)
atarte 'ataria'	« Atarte zabaletik sartu eta, barruan, ardi larruzkoa ematen duen alfonbra zuria zapalduz sartu gara salara...»	(53)

ataut 'hilkutxa'	« Atauta zulora jaitsi, hormahobian sartu eta tapa betirako ixtea.»	(34)
ateko banda 'itsasoko aldera ematen duen aldea'	«Orduan ikasi nuen, baita ere, zer den ateko banda eta zer lehorreko banda. Eta toleta, eta broga, eta estropua, eta tosta.»	(191)
atezuan 'tentsioan, teinkaturik'	«Hainbat izotz ainguratan lotuko duzue, sokak atezuan ...»	(311)
atoan 'berehala'	«'Amatatu argi hori eta zoaz atoan ohera!」»	(78)
atoian 'erremolkean'	«...ziztu bizian egingo duzue igerian ur azalera eta gero lehorreraino, atoian ekarririk sarea gauza galduez beterik.»	(364)
atondu 'antolatu, prestatu, egokitu'	«Amak lata ur berri eta lore berriekin atontzen zuen artean...»	(34)
atzendu 'ahaztu'	«...edota zeuk ere zeure herria zer den ia atzenduta izango duzulako.»	(426)
auhen 'atsekabezko oihua'	«...ez du ahotsik egingo, baina gero bere auhena entzungo duzu, elurraren boza nerabearen modukoa izango da, eta orbelaren modukoa...»	(362)
aupa 'animoa'	«...ikuslerik gabe, auparik gabe, aintzarik gabe, garaipenerako irrika handirik gabe, galtzapenerako beldur handirik gabe...»	(233)
aurrezan 'aurrez esan, pronostikatu'	«'Nire erreumarekin,' dio bere hagin gabeko ahotsez, 'eguraldia meteorologoaren moduan aurrezan .»	(222)
auskalo 'batek daki!', nork jakin!'	«Goio izoztu egin dela eta, auskalo zer adierazi nahi duen Josenek izoztu horrekin.»	(16)
azabatxe 'atxabitxia, beltz distiratsua'	«Uso lako hegazti zuri zuriak helduko dira, bi azabatxe puntu bakarrik begitxoak eta bi grafito marratxo zangoak...»	(341)
azartatu 'asmatu, igarri'	«Goioek ez zuen umekieratarako gogorik baina ia berez azartatzen zituen erantzunak...»	(104)
azelakoak! 'zelakoak, nolakoak! (indartua)'	«'Eta azelakoak! ' diot nik, bugainbilearen lore zuri eta ubelak zapalduz goazen artean.»	(58)
azkonar 'ugaztun haragijalea (tejón)'	«Jose Uriosteren esaera izango dela pentsatu dut, Gorbeia mendi barrenetako azeriak, azkonarrak , basurdeak imajinatuz.»	(296)
azpil 'erretilua, plater gisako ontzi handia'	«Ez diozu albokoari janaren azpila pasatuko, ez duzu dantza egingo.»	(263)
azulkara 'urdir antzekoa'	«Pinguinokumeek beren lumatxa leuna galdua izango dute horrezkero eta luma beltz azulkarak luzituko dituzte, nagusien trajea jaso gabe oraindik.»	(312)
babarrun 'indaba'	«Arroz eta babarrun entsalada prestatu dut afarirako.»	(28)
babo 'papaua, pepeloa'	«Hegazti umeok, hegazti babook , hegatsez ezin duten hegazti ohi potolook, urrats laburrez ibiliko dira...»	(261)
babo-baboa geratu 'lelotuta geratu'	«Juan Bautistak erretzerakoan ohitura zuen babo-baboa geratzekoa , putz egin eta keari begira.»	(38)
badeutso! 'oratu dio, arrainak amua jan du'	«'Badeutso! Badeutso!' esaten zuen Goioek bere lagunek bezala, arrantzaleek bezala, atzamarretan azkura sentitzen zuenean.»	(69)
baldartu 'trakestua, itxuragabetua'	«Eta ni atepeko alfonbra gogoan, Bluefields umeleko zapata bustientzako ehun baldartu hura.»	(27)
balea 'argi ontzietarako koipea, olioia'	«'Zer da balea?' galdetu zuen Goioek, hala entzun baitzuen, balea . 'Kriseiluarentzako koipea da balea,' esan zuen neskak.»	(257)
bare 'limazidoa, maskor bakoa'	«Eta, bere begi geldoak bi bareren moduan erabiltzen dituela...»	(63)
barlobento 'haizeak jotzen duen aldea'	« Barlobento haizearen aldea zen, afontuko banda. Eta beste aldea, haizea jasotzen zuen aldea, sotabentoa edo haizebea deitzen zen.»	(191)

barrunbe 'barua, barneko aldea'	«Kanpora irtetea ia debekatua zegoen, baina edifizio handi eta zahar haren barrunbeak ere debekatuta zeuden guretzat.»	(146)
baten bat 'norbait, nonor'	«Katu zaurituaren moduan egin zuen aiots baten batek kanpoan eta ta ta ta ta errafagak entzun ziren berriro luzaroan.»	(352)
batto 'bat'	«...ez dira iratzarriko harik eta zarata ozena izan arte, orduan begi batto zabalduko dute, keinua eginik bezala...»	(286)
begirakune 'begirada zorrotza, gogorra'	«...Goioeren begiek erretratuko haren begirakune artezarekin tope egin zuten...»	(105)
beilegi 'horia'	«...han zegoen oraindik, herdoilduta, elefante beilegiaren modukoa...»	(243)
berbabide 'hizpidea, berba egiteko aitzakia'	«Goizaldeko orduetan zehar hainbat berbabide egin eta logalearekin zabuka hasi nintzenean, baietz esanez, Andonik euskal ganbarara eraman ninduen.»	(84)
berbaro 'berbots isila eta urruna'	«...baina gurpilen jirabirak iradokitako berbaroa ere apur bat irreal da...»	(47)
berbazaku 'berbalapikoa, hitzontzia'	«Bere berbazaku hutsetik, antzeman ezindako keinu batzuk dira bere erretolika guztia.»	(65)
berdotz 'morea, ia ubeldua'	«...Don Patricio deitzen zen, berrogeita hamarren bat urteko gizona, larru kolore beltzaran ia berdotzekoa , trajez jantzia.»	(147)
bere kasako 'berea bezalakoa, berari dagokiona'	«Bere lengoaia ere, zerbait dioenean, ez da batere bere kasakoa .»	(215)
besakada 'besoekin indarka igerian'	«'Beroa!' zioen Juan Bautistak eta besakada sakonak eman behar zituen izoztuko ez bazen.»	(192)
bestiario 'piztiakiko kontakizuna'	«...edo auskalo ze sasoi ilunetatik zetorren ikaragarritzko bestiario hura erabilirik.»	(188)
betazalak batu arte 'logurak menperatu arte'	«...eta betazalak batu arte aritzen zen helbideak kopiatzen.»	(334)
beteko zingo 'pertsone baten sakonera'	«'Zeu beteko zingoa baino ez dago hor!' esan zidan irribarrez. 'Ez zinateke hor itoko!'»	(192)
bihozkada 'taupada, mugimendua'	«...hila izaraz beztitzen den moduan, eta ez da itsas bihozkadarik izango gehiago, ez sistole ez diastolerik.»	(344)
birika-mina 'tuberkulosia'	«...ez zituzten ordura arte ezagutzen zuriak ekarritako hotzeriaren birusak, birikaminaren bakterioak, txankro sifilitikoak. Ezagutu eta erremediorik gabe ezereztu ziren banan bana.»	(229)
bits 'aparra'	«Enbarkazioak ura branka bularrak jo eta erdibituko du (...) bitsa altxatuko du eta apar kizkurtu horrek (...) lorratz zurixka utziko du atzean.»	(158)
bokarta 'antxoa'	«...putz egiten zuten umeek haizearen erraldoiak balira lez, sorginbelar buruaren ilaje urdina sakabanatzeko. Baina itsasoan bokarta zen lorarik	(332)
bon	«Bluefieldsen gaude eta moilan ere reggae entzuten da, eta bon eros daiteke.»	(16)
braustada 'kolpea'	«Ama eta balekumea izango dira akaso. Itriborretik pasatuko dira astiro, lantzean behin buztanaz braustada eman eta murgilduz...»	(236)
broga 'tolete bitartea, espazioa'	«Orduan ikasi nuen, baita ere, zer den ateko banda eta zer lehorreko banda. Eta toleta, eta broga , eta estropua, eta tosta.»	(191)
brunka-brunka 'burrnbaka, zarataka'	«...eta beste lekuri ez balego lez abiatzen ginen tropelean eta brunka brunka patiora.»	(333)
bufada 'aire kolpea, bafada, putzaldia'	«Eta pitzaduraren gainertzetik begiratzean, barru sakonetik igotzen den bufada glaziala sentituko duzu.»	(310)
bugainbilea 'lore mota, igokaria'	« Bugainbilearen lore zurixka eta ubelak ikusten dira...»	(55)
buia 'objektua, ur azalean jartzen	«'Horregatik dago hainbeste buia , eta buia lerroek seinaturiko erretenetik nabigatu behar duzu.»	(154)

burrunbari 'hegaka modu zaratatsuan'	«...ura kanilan hustubideren baten bila, egarria ase ezineko eztarrian behera bezala (...) edo erlstar burrunbaria argiaren bila.»	(219)
burruntzali 'burduntzalia, koilare handia'	«Zuk galdara bat eta burruntzalia hartu eta klinko klinko klinko ekingo diozu eta, kolpekari batzuekin batera, musika banda ederra osatuko duzue.»	(328)
buruka 'topeka, kolpeka'	«Eta hortxe bertan etxaurreko moilan lotuta dagoen txalupa buruka ari da enbor ustelduen kontra.»	(21)
buruzut 'tente'	«Laster hasiko dira ortzimugatik beste batzuk azaltzen, errealismo harrigarriarekin, buruzut eta hieratikoko beren bidaia geldoan.»	(230)
dagerrotipo 'argazkilaritzaren aurrekaria'	« Dagerrotipoen sasoikoa ematen du agure zahar honek.»	(222)
danbateko 'kolpe gogorra, zaratatsua'	«...Charles Chaplin, Buster Keaton, Lodia eta Argala, eta enparauak. Etorri, estropezu, oreka galdu eta itzelezko danbatekoa hartuko dute...»	(260)
dandar 'gandorra'	«...hiru oilo saskian, elkarren kontra, luma multzoa dardaraka, burua hegalpean gordeta, dandarra gora, uzki uzkurto eta arrosa kolorekoak agerian.»	(16)
daun-daun 'atea kolpeen hots-hitza'	«Atea daun-daun jo eta laster sumatu dut itzal bat leihoan.»	(80)
demokrazia organiko 'Francoren "democracia"'	«'Hi maiteminduta hago!' esan nion, Clemente Lopez demokrazia organikoari buruz ari zen uanean.»	(252)
desarrantza 'arraina saretik soltatu'	«Han aritzen ziren Goioren ama eta beste saregileak driban harrapatu eta loluta geratutako arraina banan bana desarrantzan .»	(332)
desorduan 'ordu desegokian, txarrean'	«Egunargia laburtzen delako edo luzatzen delako, zalantzan, ezbaian, kukurruku egiteko hausnarrean, desorduan kantatzen behartuak, erotu egiten	(203)
diastole 'bihotzaren lasaitze fasea'	«...hila izaraz beztitzen den moduan, eta ez da itsas bihozkaririk izango gehiago, ez sistole ez diastolerik .»	(344)
dilindan 'zintzilik, kulunkatzen'	«Buda Amandrea ematen du galipotezko ama edo amama dirdaitsu horrek, koloretako painelua buruan eta zirrindola doratuak belarrietatik dilindan .»	(45)
dingilindango 'zintzilik dagoen atal biguna'	«...bere gorputz sendoaren itzalguneak, bere ibilpauso nekatua, bere sabelpeko dingilindango iluna, bere keinuek islatzen duten etsipen sakona.»	(219)
dirdiraka 'diz-diz egiten, dirdaitsu'	«...arratsean txalupa batzuetako bonbillak ikusten zituen (...) munduaren bihotz ilunaren taupadengatik osatzeen ziren olatuen arabera dirdiraka .»	(41)
dirdirante 'dizdizaria, distiratsua'	«...euren burusoil dirdiranteak , euren begi borobil eta amultsuak, euren bibote luzeak, euren gorputz astun aratza.»	(280)
driba 'sare bitartea' (?)	«Han aritzen ziren Goioren ama eta beste saregileak driban harrapatu eta loluta geratutako arraina banan bana desarrantzan.»	(332)
durundi 'oihartzuna'	«Irratia durundi , txistu eta euri hotsarekin entzuten zen...»	(209)
edanabarrean 'edateko sasoia'	«'Beti ibiltzen da edanabarrean , trago baten ondoren laster beste bat...»	(166)
ederraren ederrez 'hain ederrak izanik'	«Egun haiek bizitzaz eta memoriaz bete gintuzten eta ederraren ederrez ia gezurrezkoak iruditzen zaizkit.»	(94)
egundo 'sekula'	«Eta beti dira zatiak, proiektuak, entseguak, egundo osatuko ez diren zirriborroak.»	(29)
ehun 'oihala'	«Eta ni atepeko alfonbra gogoan, Bluefields umeleko zapata bustientzako ehun baldartu hura.»	(27)
eite 'moldea, tankera'	«...barrote atearen bestaldetik begiratzen zigun Sabino Arana alpargatadunaren eitekoa egiten zitzaigun.»	(367)
ekandu 'ohitura, joera'	«Eta, euskaldunen ekandu antisentimentalak ahaztuz, antropofagia apur batekin besarkatu dugu batak bestea, musua ahoan emanez...»	(423)
elezahar 'kondaira, antzinako istorioa'	«...ez duzue arima bila lehorrera inguratzen den txalupa zuriaren eta gringoaren elezaharra entzungo.»	(186)

emaro 'etengabe'	«Gero elurra hasiko da, emaro , etenik gabe.»	(279)
ematu 'emakumetu, feminizatu'	«Orduan, neska kiowa hori bahitu egingo dute (...) ea ezari ezarian ematzen eta hezten den...»	(319)
enbarazu 'estutasuna, larritasuna'	«Bere enbarazuaren arrazoa izenik gabeko tramankulu hura zen, eta ez zion izenik lotzen...»	(39)
endredatu 'aldrebestu'	«...Ierro zuzenak eta kurbak, bat-bateko angeluak eta hiperboleak marrartzuz, geometria euklidearraren postulatu guztiak endredatuz .»	(203)
engaiatu 'konprometitu, atxiki'	«Horrelako erresistentzian engaiatzen den jendea naturaren bitxikeria bat da.»	(308)
enparauak 'gainerakoak, besteak'	«Belarrietatik eskegi dizkirate inflazioak, autobideko hilak (...) eta enparauak , harik eta irratia amatatu eta liburua altzoan hartu dudan arte.»	(28)
enpatxu 'betekada sentsazioa'	«Gustatzen zaizu neska bat (...) eta kasurik egiten ez badizu, ezin duzu enpatxua gainetik kendu.»	(336)
erabakikortasun 'determinazioa'	«Otutzen zait begi lausoz so egiten diogula denari, gure bizimoduaren argitasuna eta erabakikortasuna azalekoa dela eta gutako bakoitza mundu zarratua dela.»	(95)
erdiesango 'gutziz esan barik'	«Eta arrainaren begiak uraren gainean ikusten zituenean, Harrapatu zaitut erdiesango zuen.»	(69)
erestaldi 'kantaldia'	«...igelak kroak-kroak entzun zituen, kilkerren erestaldia , eta geroago...»	(105)
eriona 'isuria'	«Ur bero eta lurrin erionak ugari topatuko dituzue.»	(248)
erlastar 'erlea baino handiagoa'	«...ura kanilan hustubideren baten bila, egarria ase ezineko eztarrian behera bezala (...) edo erlastar burrunbaria argiaren bila.»	(219)
ernarazi 'berpiztu, biziarazi'	«Zientzia Naturaletako klasean entzuna nuen, udazkenak hiru zentzumen ernarazten dituela: ikusmena, entzumena eta usaimena.»	(208)
ernegu 'ezinegona'	«Azelako ernegu , karraka eta deiadarrak pinguino amenak, pinguino jaunak hurrean serio eta arlote geratzen diren artean.»	(262)
erorbeldur 'erortzeko beldurrez'	«Zintzilik eta hormari eutsirik etenik gabe erorbeldurrez zegoen hura batez ere.»	(208)
erramu 'arrauna'	«'Abantean dena!' deiadar egin zien Juan Bautistak, popan zutik, patroia erramuari eutsirik.»	(68)
errekalada 'deldialdia'	«Eta errekalada egingo duzue kaioen uhartean.»	(181)
erretolika 'hitz aspertua ("rollo, chapa")'	«Neska hau zure erretolikarekin gogaituko duzu!»	(57)
erria 'jaitsi'	«'Baina ez zaitez hain lentoa izan,' esan zidan galtzaren botoia askatzen zidala. 'Erria galtzak!»	(348)
errime 'bizi, ozen'	«Eta botila ardoaren inguruan kartetan hasi ziren, errime solasean.»	(155)
erromes 'ibiltaria'	«Ia berrehun metroa izango da, murutzar erromesak sortuko dira uretatik...»	(282)
eskuare 'eskutailea, belarra batzeko	«...idiek ardilarua buruan, aittitte painelua buruan, auzokoak eskuarez edo sardez ekinean.»	(100)
estaia 'solairua'	«...diskotekak hiru estaia ditu gutxienez.»	(430)
estekatuta 'tinkatua, inkatua bezala'	«...Goiok berea esaten zion enbarkazioa, bazterrean estekatuta aspalditik, hondoak behea jotzen ziola...»	(242)
estrabaloka 'loka, finkatu ezinik, indar barik'	«...Cassius Clay ozta ozta zutitu zen, zangoak estrabaloka , begiratua galduta.»	(389)

estreinakoz 'lehenengoz, lehen aldiz'	«Gizona etxera etortzen hasi zenetik Goio libreagoa zen nahinora joateko, Zoaz kalera gura badozu lakoak entzuten zituen estreinakoz .»	(35)
estropu 'toletero sokazko uztaia'	«Orduan ikasi nuen, baita ere, zer den ateko banda eta zer lehorreko banda. Eta toleta, eta broga, eta estropua , eta tosta.»	(191)
etxeorraz 'etxebizitza eraikin altuak'	«Eraikin berriak, hodeiak urratzeko moduko etxeorrazak , fantasma erraldoi zigortuen gelditasunarekin.»	(136)
ez da zertan esan 'ez dago esanetik'	«'Ez da zertan esan!' esango diozu.»	(396)
ezari-ezarian 'astiro, apurka-apurka, geldiro'	«Sukalde ilunetik zipote bat agertu da ezari-ezarian , beltzarana, oinutsik.»	(18)
ezbehar 'zerbait desegokia'	«'Barkamena eskatu behar dizut, lehengo egunean nire mozkorrekin ezbeharren bat esango nizun igual.'»	(303)
ezereztu 'desagertu, suntsitu'	«...ez zituzten ordura arte ezagutzen zuriak ekarritako hotzeriaren birusak, birikaminaren bakterioak, txankro sifilitikoak. Ezagutu eta erremediorik gabe ezereztu ziren banan bana.»	(229)
ezkaratz 'sukaldea'	«Baserrian, ezkaratzeko ate ostean, bere hazkundearen markak zeuden...»	(99)
ezkoztatua 'argizariz igurtzia'	«...lau lagun joan ginen eskaileretako edo pasillo luzeetako zoru ezkoztatuan draz-draz-draz eginez, ate zarratuak krik-kriz zabalduz.»	(147)
ezmezean 'zalantza bezala, mugitu-gelditu ibili'	«...arratoi bat ikusiko duzu zeure boten aurretik brankatik poparantz ezmezean pasatzen.»	(287)
ezpada 'baizik eta'	«Ez dut anatopiko hitzaren esanahia ulertzen, ezpada Imanolek bere aita defuntuarekin itzelezko ikamika duela.»	(56)
fardel 'paketea'	«Eta noizean behin goitik behera jauziko dira kaiok (...) fardel galduak legez, eta batzuetan abixoi txiki batekin...»	(230)
fen 'Formación del Espíritu Nacional'	« FEN klasea izana genuen ordura arte.»	(252)
frankobordo '?'	«Kargaontzia berandu eta beteegi heldu da, frankobordoa uretan murgilduta baitu.»	(44)
freak 'arlotea, estrafalariora'	«Gure arbasoak freak hutsak ziren.»	(88)
fumeta 'ke itxurako ur lurrundua'	«Haize min eta zakarra egingo du eta itsasoak gogor jasoko ditu olarroak eta fumetak .»	(165)
gabika '(txirrindulari ospetsua, mendiak igoten)	«Han buelta eman eta etxera, Gabika kikildu baten moduan.»	(35)
galapan 'korrika, arrapataka'	«Bi zakur alsaziar heldu dira aldats behera galapan .»	(52)
galipot 'biketa (alquitrán)'	«Buda Amandrea ematen du galipotezko ama edo amama dirdaitsu horrek, koloretako painelua buruan eta zirindola doratuak belarrietatik dilindan.»	(45)
gandor 'gangarra, oilarren buruko atala'	«Eta haizeak uhinen paparra eta gandorra altxatuko ditu, ufaka, eta aire kolpeek behelaino antzera jasoko dute ura ontziaren gainetik.»	(200)
gandu 'lurrun geruzaren antzekoa'	«...hemen ere balea hilen hondakinak izango dira, odolezko gandu gorrilunak barreiaturik eta ur urdinarekin nahasturik.»	(248)
garau 'alea, landare hazia'	«Harrituta begiratu dut kanpora, guaiaba garauak haginaren artean nabaritzen, eguzki egun sargoria ikusteko.»	(214)
gato 'pastela, bizkotxa'	«...même si mal en vivez, eta gatoa ekarri zuen kafearekin. Goiok ez zekien gâteau ekarri zuen kafearekin.»	(194)
gesala 'kresala, gazitasuna'	«'Zero azpitik dago, gesalagatik ez da izozten,' entzunen duzu.»	(312)
gilaz gora 'aratnik gora begira etzanda'	«...tostan arnasestuka, han hondartza bazterrean eguzkipean gilaz gora irribarrez eta esamesaka zeuden neskekengana zelan hurbildu asmatu behar	(70)

goata 'kotoia'	«...paisaiaren bazterrean oraindik urrun errege magoak, eta elurra goatazkoa .»	(256)
governatu 'zaindu (elikatu eta garbitu)'	«...aittite kortan ari zen berriro behiak governatzen .»	(104)
gogaitu 'aspertu'	«FEN heltzen zen eta gogaitzen ginen demokrazia organikoaren ezaugarriekin.»	(333)
gogaitua 'aspertua'	«...haien aurpegietan Jainko gogaituaren keinua islatzen zela sumatu zuen.»	(34)
gogoetari 'hausnarketan bezala'	«...marmolezko estatua klasikoak han-hemenka sakabanatuak, idulkien gainean goratuak, zuriak, gogoetariak .»	(55)
goitar 'goragokoa, urrunagokoa'	«Eta arrantzontzi bat ere ikusi zuen. Ez zen Kalaportukoa, banderarik gabe zihoan eta goitarra izango zen.»	(387)
goizargitze 'goiznabarra, goiztiria'	«...eta patrioko ur putzuak izoztuta topatzen genituen goizargitze zurbiletan.»	(268)
gomutazurreko 'premonitorioa'	«Hotza egingo du eta haizeak gomutazurreko beste min batzuen airea ekarriko du...»	(433)
gorritzta 'gorrixka'	«...leihora inguratu denean bere gorputz zahartu eta astunari nabardura urdin, gorritzak eta ubelak egin dizkio ilargiak.»	(219)
hagatik! 'horrexegatik (Porque sí)'	«'Zer dakit ba nik. Hagatik! '»	(73)
hankalatraba 'hankak alde banatara eserita'	«Eta ama zangoan zabaldu eta gizonaren sabelean hankalatraba jarri zen, besoak oso gogor atxikita gizonaren bizkar gainean...»	(37)
hantu 'handitua, harrotua, afotua'	«Antxetak bere begi lateralak kliskatu zituen, lumajea hanturik zuen eta lodia ematen zuen...»	(294)
harbide 'galtzada, harrizko bidea'	«...Pauso Galduen Galerian barrena edo frantsesa ematen duen lorategi honetako harbideetan .»	(218)
hausnarrean 'gogoetatzen'	«Egunargia laburtzen delako edo luzatzen delako, zalantzan, ezbaian, kukurruru egiteko hausnarrean , desorduan kantatzen behartuak, erotu egiten	(203)
hauspo 'suari eragiteko tresna'	«...hara hor beheko sua, tigre diseatua, laratza, malboro paketea, hauspoa , betamax, dena nahastean eta ostetasun nabarmenean.»	(53)
hazizurri 'gaixotasuna, hanturen eragilea'	«Ibaiko islara itzultzean, harresi erdi eroriaren arrailduran iguana bat ikusi dut (...) hazizurriak dituela eta gargarak egiten.»	(23)
hieratiko 'itxura sakratua, erlijiosoa'	«Laster hasiko dira ortzimugatik beste batzuk azaltzen, errealismo harrigarriekin, buruzut eta hieratiko beren bidaia geldoan.»	(230)
higuigarri 'nazkagarria, antojugarria'	«Uretan odola, gantza, petrolio. Hats higuigarria badia guztian.»	(246)
hilizkribu 'epitafoa, hilobietakoak'	«Bandera gorri ilunduaren azpian, egurrezko taula bat izango da hilizkribu simple honekin...»	(313)
hondar 'arrastoa'	«'Eta Gandarias?' 'Gandariasen hondarrik ere ez.'»	(402)
hondarpe 'urpeko hareatzak'	«...itsaso horretan ur korronte arriskutsuak daude, eta hondarpeak , eta azken gerretako minak...»	(154)
hotzeria 'gripea'	«...ez zituzten ordura arte ezagutzen zuriak ekarritako hotzeriaren birusak, birikaminaren bakterioak, txankro sifilitikoak. Ezagutu eta erremediorik gabe ezereztu ziren banan bana.»	(229)
hozkirri 'freskoa'	«Eguraldi goibela iragarriko da eta, gau lasai eta zohardiaren ondoren (...) hego haize hozkirri batek joko du.»	(157)
huntza 'huntzorria, landare igokaria'	«Eta hurrengo baserrian ere huntza hazten zen horma zaharretan gora, harri arteak eta arraildurak profitatuz.»	(257)
hurreen 'hurbil, gertu'	«Azelako ernegu, karraka eta deiadarrak pinguino amenak, pinguino jaunak hurreen serio eta arlote geratzen diren artean.»	(262)

hurrupaka 'zurrut eginez'	«...katilua ezpainetara eramaten zuen bakoitzean, kafesnean hurrupaka edanez, Goiok koilara sakatzen zuen oihal ziratuko loreen kontra.»	(79)
hustubide 'ura husteko hodia edo kanala'	«...ura kanilan hustubideren baten bila, egarria ase ezineko eztarrian behera bezala (...) edo erlastar burrunbaria argiaren bila.»	(219)
idulki 'enbor zatia, peana'	«...marmolezko estatua klasikoak han-hemenka sakabanatuak, idulkien gainean goratuak, zuriak, gogoetariak.»	(55)
igande pausoz 'astiro, emeki-emeki'	«...eta poltsikoa diruz beterik izango zutela, munduan zehar igande pausoz ibiltzeko moduan.»	(39)
ika-mika 'eztabaida, sesioa'	«Ez dut anatopiko hitzaren esanahia ulertzen, ezpada Imanolek bere aita defuntuarekin itzelezko ikamika duela.»	(56)
ikusmuga 'zerumuga, ostertza'	«Eguzkia iparraldeko ikusmugan agertuko da, oso zurixka, baina izotz tontorrek doratuko ditu.»	(358)
inkaminaria 'inkaminak egiten dituen, prestidigitadorea'	«Kristalak inkaminariaren abiltasun ustekabearekin xurgatu eta itzuliko dizu figura.»	(144)
irakin 'inkandeszentea, bizi-bizia'	«Horma zulotik proiektoreak jaurtiriko argi irakinaren urruma entzuten zen eta koloreak pantailan dirdiraka zabaltzen ziren...»	(201)
iratze 'ira arloa'	«Larre zabaleko zanga luzea saltatu eta, alboan iratzea eta sasia izan arren, pinu orriak alfonbraren modukoa eskaini zion.»	(100)
iraulki 'kaxa biragarria duen ibilgailua'	«Han, iraulkitik jaitzarazi eta beste lau presorekin batera ilaran jarri gaituzte eguzkipean...»	(48)
isekari 'burlati, trufatzen'	«Itsastxakur batek izotza buruaz joka apurtu eta muturra agertuko du zulotik, isekari .»	(344)
isla 'erreflexua, soslaia'	«Eta Beholden auzoko eskaparateen kristalean ezagutu dut nire isla , erosketan...»	(22)
isolazio 'isolamendua, bakardadea'	«...argiari begira gu, jende bakartia, isila, denak elkarrekin bilduta, baina bakoitza bere isolazioan ...!»	(201)
istingatsu 'zingiratsua, aintzira ugariko	«Eta Bluefields istingatsu hau uztera goaz.»	(43)
istinkatu 'kareleko zirrikituak estali'	«Hurrengo egun batean Juan Bautistaren batela istingatzen jardun ginen.»	(401)
istribor 'itsasontziaren eskuinaldea'	«Batak bestearen ostean egiten zuten istriborretik kikunbera.»	(70)
itolarri 'itotzeko sentsazioa, egoera'	«...koloreak galdurik, aurpegiak okerturik, birrikak errementatu beharrean. Itolarriarekin irten ziren azkenerako.»	(40)
itsasgaldu 'olatu en eraginez, ur bultzadak'	« Itsasgalduak zuenganaino ailegatuko dira, ontzia balantzaka ezarriz.»	(276)
itsasketa 'itsas bidaiatxo'	«Izkinadatik hurbil jarraituko duzue itsasketa ...»	(198)
itsaskirri 'itsaso apur bat harroa, mugitua'	« Itsaskirria izanen da eta olatuak nabarmenak izanen dira atrakalekuan.»	(328)
itsaslaster 'itsas korrontea'	«...izotz barreratik askatutako zatiak direla, eta handiak izan daitezkeela, eta jitoan datozela datozela haizeak baino gehiago itsaslasterak bultzaturik.»	(231)
itsumutil 'itsuen laguntzailea'	«Makina geldian! Itsumendu zuri hartan, radarra zen kapitainaren itsumutila . Geldiro jarraitzeko agindu zuen...»	(154)
itu 'diana, jolekua'	«Lodia garondoan jo zuen, hain itu zabalarekin ezinezkoa baitzen huts egitea.»	(133)
itzulikatu 'biraka aritu'	« <i>Denbora errota bezala</i> itzulikatzen da eta, beharba, elkar berriz ikusiko dugu geroan.»	(399)
ixtura 'itxitura'	«Futbola izan zen, Ikastetxeko ixtura hartan, indarrak husteko modu bakarra.»	(150)

izarramentu 'izarrez betea, izartsua'	«'Gau izarramentua ,' oroituko duzu Kalaportuko arrantzaleen berbamodua, eta errime esango duzu, 'bihar izorramentua!」»	(236)
izetu 'piztu, abiarazi'	«Zuek ere motorrak berriz izetu eta martxan jarraituko duzue itsasoko ur ordokietan barrena.»	(230)
izetuta 'piztuta, iziotuta'	«Ontzi batzuetako bonbillak izetuta daude oraindik, baina badia ilun, eta han malekoi parean topatuko duzu...»	(141)
iztaia 'izter-sabelaren elkargunea'	«...aittite aulki txikian eserita burua behiaren iztaian pausatuta topatu zuen.»	(104)
jagi 'altxatu, jaiki'	«Goio bere gordetegitik jagi eta irten zenerako Harriandiko bunker zaharreko aterpean eserita zeuden denak.»	(74)
jagi 'jaiki, altxatu'	«'Labadurea? Ba, orea jagiteko erabilten dana.»	(217)
jausi eta jausi jardun 'etengabe, geldiune barik'	«Elurrolde metodikoa izan zen, jausi eta jausi jardun zuen dena eternalki estali nahi balu bezala...»	(257)
jauzi 'salto egin'	«Eta noizean behin goitik behera jauziko dira kaioak (...) fardel galduak legez, eta batzuetan abixoi txiki batekin...»	(230)
jazarle 'atzetik segika dabilena'	«Sorterria, itsaso zabal eta ilunaren bazterrean, itsaso beti jazarleari paparra ematen zioten harrizarren magalean...»	(405)
jingle bellska 'jingle bells kantatuz'	« Jingle bellska iratzarriko zara eta Ednak besarkaturik zaude ohean.»	(202)
jitoan 'deriban, korronte-haizeen	«...izotz barreratik askatutako zatiak direla, eta handiak izan daitezkeela, eta jitoan datozela haizeak baino gehiago itsaslasterrak bultzaturik.»	(231)
joankizun 'igaro dena'	«...borradoreak zirriborraz estaltzen naizela eta oraingo bizitza uzten dudala joankizunaren eta etorkizunaren narrazioa egiteko.»	(306)
jori 'betea'	«...arestiko basamortu orain bai belarrez joria miresteko, behi saldoak muuuka larrean, eta kontaezinbesteko izarrak ere miresteko...»	(320)
joritasun 'ugaritasuna, betetasuna'	«...eta hemen behean geratuko da Gorria gaixorik, joritasunaren basamortu eta ahanzturaren jungla sakon honetan.»	(24)
jotzekoa egin 'jotzeko keinua egin,	«...Goiok, lotsaz gorrituta, jotzekoa egin zion Agustini.»	(75)
kabiltzar 'langa luzea'	« Kabiltzar baten ganean eseri nintzen, burdinazko kabiltzarra arrantzontzi baten brankaraino luzatzen zen eta ontzi lotua urearekin mantso mugitzen zen.»	(151)
kalamastra 'baldarra, traketsa'	«...kruzero handi dotore bat ere bai, hirulau arrantzontzi txiki zahar kalamastraren alboan.»	(392)
kanila 'txorrota'	«...ura kanilan hustubideren baten bila, egarria ase ezineko eztarrian behera bezala (...) edo erlaster burrunbaria argiaren bila.»	(219)
kankailu 'handikotea eta itxura baldarrekoa'	« Kankailua alde batetik bestera dabil...»	(214)
karnata 'amuzkia, amuan jarritako beita'	«Agure batek soka bat eusten du, uretan uhin zirkularren erdian galtzen dena, arrainen batek bere karnata topatuko duelakoan.»	(44)
karraka 'txorien oihu errepikatuak'	«Azelako ernegu, karraka eta deidarrak pinguino amenak, pinguino jaunak hurrean serio eta arlote geratzen diren artean.»	(262)
karraskatu 'hortz-haginak elkarren kontra igurtzi'	«...sasiak eta ekarri genituen alboan sua egin eta ohola lehortzeko, gero karraskatu egin genuen kroskoa.»	(401)
katamar 'lauoinka ibili, katuka ibili'	«Neska orduan zakila ahotik atera eta katamar etorri zen Goioren gainera...»	(372)
kategorikoki 'ziurtasunez'	«4-B, zehaztu zuen berak, kategorikoki , inoren erantzunen ia beharrik gabe egiten baitzituen galderak eta baieztapenak.»	(206)
kausitu 'aurkitu'	«Eta telebistan (...) jende famatua, giro dotorea eta solas erakargarria kausituko ditu.»	(111)

kikunbera 'kikumera, uretara txonbo egin'	«Batak bestearen ostean egiten zuten istriborretik kikunbera .»	(70)
kipea '?	«Andrea bere sonbreirutxoarekin, kipea bizkarrean urrundu eta ttpa-ttpa pauso arinka.»	(80)
kiribil 'kirrua, biribilean bildua'	«...ostadar arrarora osatuko da, gortina kiribil gorri, berde, urdin eta egundo ikusi gabeko koloretakoak zabalduko dira zerutik zintzilik itsasoraino.»	(329)
kitxua 'Hegoamerikako hizkuntza'	«Andreak bere ibilera gelditu gabe eta kitxua doinuko gaztelaniaz erantzun dit...»	(80)
kizkurtu 'kiribildua, bildua'	«Enbarkazioak ura branka bularraz jo eta erdibituko du (...) bitsa altxatuko du eta apar kizkurtu horrek (...) lorratz zurixka utziko du atzean.»	(158)
koartza 'txori mota, hanka luzekoa'	«...eta han bazterrean koartzek beren sama zuria luzatzen dute espermazko ilargirantz.»	(21)
kodaina 'sega, belarra ebakitzeko	«Goiori tresna harrigarria iruditzen zitzaion kodaina .»	(100)
kriptiko 'itxia, zarratua'	«Ba hi ere nahiko kriptiko hago gaur, neska!»	(31)
kriseilu 'argi ontzia'	«Eguzkia kolore urdin berdekaraz ahaleginduko da noizean behin agertzen, baina nekez, erregairik gabeko kriseiluaren moduan.»	(161)
kulunkaulki 'aulki kulunkaria, mezedora'	« Kulunkaulkian haria biribiltzen zuen andreak...»	(316)
kuxkuxean 'zelatan bezala, ikusmiran'	«Orduan, bere neskalaguna logelako atetik kuxkuxean agertuko da.»	(113)
labadure 'legamia, altxagarria, bentzagia'	«'Labadurea? Ba, orea jagiteko erabilten dana. Josuk legamia edo bentzagia esaten dio, labadureari.»	(217)
labar 'itsaso ertzeko horma'	«Orduan, imajina ezazu izoztu egin dela gizona, ez Gorbeia gaineko neguan, ez Antarttikako labarretan , baizik eta hementxe izoztu dela...»	(221)
lahar 'sasia'	« Lahar makurtu horietan izanen dute habia islen gainean hegan dabiltzan hegazti ugariak.»	(185)
lako 'bezalako, moduko'	«...Maite behar duzu ze zure aitaordea izango da, aita lako a.»	(209)
lakoak 'bezalakoak, modukoak'	«Gizona etxera etortzen hasi zenetik Goio libreagoa zen nahinora joateko, Zoaz kalera gura badozu lakoak entzuten zituen estreinakoz.»	(35)
lamikatu 'milikatu, miazkatu'	«Ababorrera egin genuen eta Harriandi paretik joan ginen (...) haizea arnastuz eta ezpainetan bilduriko gatza lamikatuz .»	(190)
lar '-egi'	« Lar goiz zen arren, ume ugari zegoen eskolako ate handien aurrean...»	(123)
laratz 'beheko suetako katea, tximiniakoa'	«...hara hor beheko sua, tigre diseekatua, laratza , malboro paketea, hauspoa, betamax, dena nahastean eta ostetasun nabarmenean.»	(53)
largabista 'prismatikoa'	«'Gorde egingo dugu badaezpadan,' esan zuen Juan Bautistak, 'karabineroak largabistaz egoten baitira begira...!»	(193)
larrutaldi 'txortaldia'	«Atean Portugesa egoten omen zen, kobratzen, bi mila kobratzen larrutaldiko .»	(321)
lastaira 'belarrezko koltxoia'	«Euria atertu duenean, Gorria bere aulkitik jaiki, lastairan etzan eta animalia nekatuaren moduan loak hartu duela iruditu zaidanean...»	(21)
lauso 'gandutua, lurrundua,	«Otutzen zait begi lauso z so egiten diogula denari, gure bizimoduaren argitasuna eta erabakikortasuna azalekoa dela eta gutako bakoitza mundu zarratua dela...»	(95)
lehorreko banda 'kosta aldera dagoen untzi aldea'	«Orduan ikasi nuen, baita ere, zer den ateko banda eta zer lehorreko banda . Eta toleta, eta broga, eta estropua, eta tosta.»	(191)
lekutara 'zelako lekura!'	«'Zure senarra paramilitarra da orduan! Lekutara etorri gara!」	(297)

lema 'itsasontziak gidatzeko gailua'	«Orduan, patrioiak ohola erretiratuko du eta lemara itzuliko da trabesia jarraitzeko.»	(182)
letania 'zerrenda'	«...eroen ilargi espermazkoari begira eta kilkerren letania logabea entzuten gau luzean zehar.»	(62)
likatsu 'lirdingatsua, biguna eta bustia'	«Eskua masailera eraman eta belar likatsua ukituko duzu, ziraunaren modukoa.»	(204)
likits 'nazkagarria, lohia'	«Eskuan eutsiko diozu gomazkoa ematen duen belar likitsari .»	(204)
lohihartzeko 'buzoa, lanerako arropa'	«Ezagutzen zuen, Andres, arrantzalea zen, lohihartzekoak erantzi gabe zituen oraindik.»	(35)
lorratz 'arrastoa'	«Enbarkazioak ura branka bularraz jo eta erdibituko du (...) bitsa altxatuko du eta apar kizkurtu horrek (...) lorratz zurixka utziko du atzean.»	(158)
lubeta 'blokea edo masa handia'	«Eta lubeta gainerik, txiza eginen duzu itsasora, luzaroan eta barreka, oso luzaroan.»	(145)
lumatxa 'txorikumeen lumaje fina'	«Pinguinokumeek beren lumatxa leuna galdua izango dute horrezkero eta luma beltz azulakarak luzituko dituzte, nagusien trajea jaso gabe oraindik.»	(312)
lupetz 'basatza biguna'	«'Lupetz artetik orroka...' dio Imanolek.»	(60)
luzitu 'harrotasunez erakutsia'	«...ontziaren izena, Esmirna, itsasoetan zehar urterik urte luzitutakoa seguru asko.»	(243)
malapartatu 'hondatua, barreatua'	«Arratsetan, logelarik ez zuten maitemindu bikoteak sartzen ziren, kamarote malapartaturen batean larrua jotzeko.»	(243)
malekoi 'kaimingaina, kaiaren luzapena'	« Malekoirantz joanen zara, txakurtzkoa orpotik daramazula.»	(145)
malguezin 'tinko, bere jarrerari gogor	«Atezainak letreroa seinalatu zigun, malguezin , eskuan bere linterna alferrik piztuari eraginez...»	(108)
malkar 'aldapa, aldatsa, leku aldapatsua'	«...Zubietako etxe berriak ere desagertu ziren, ume txiztien malkarraren ostean...»	(405)
malko bat 'txorrotadatxo bat'	«'Kafea alarguna emango didazu ala?' esan zuen agureak (...) ' Malko bat behintzat bota egiozu...»	(153)
mami 'punta'	«...ikara bat zabaldu zitzaion (...) soinetik paparrean gora bururaino, eta zirrikituren baten bila igotzen ziren atzamar mamietaraino .»	(36)
mamu 'eliz ertzetako harrizko irudiak'	«Goiz ailegatu nintzen arkupeetara, hogeit gutxiagotan, eta bertan itxaron nuen, mamuen azpian.»	(188)
maneatu 'prestatu, atondu'	«...tomate gordun zatitxoak erantsi eta tipulin txikituarekin, piperbeltzarekin, olioarekin eta gatzarekin maneatu .»	(28)
mara-mara 'elurraren erortze etengabea'	«Gauerdian leihotik begiratu zuenean, elurra mara mara jausten zen kanpoan.»	(257)
marruma 'orroe antzeko oihua'	«Dendaren olanaren aterpean, kazkabarraren txinpartak eta haizearen marrumak entzungo dituzu...»	(326)
mentura 'abenturak, ibilaldiak'	«...Dirk Peters nabigatzaileen menturak aipatuko dira...»	(310)
mentura 'patua, zoria'	«Eta zure mentura Ulisesena baino ederragoa izango da, edonora joanda ere, egundo egon ez zaren lekura itzuliko zarela.»	(433)
milikeria 'gurari bitxia'	«Hemen erneguek, nahikariek, milikeriek , oihartzuna aurkituko dute...»	(95)
min 'larria, bizia, handia'	«Zurekin zerikusia duen gabezia min bat dudalako esango zuen Goioek...»	(386)
moila 'kaia, nasa'	«Bluefieldsen gaude eta moilan ere reggae entzuten da, eta bon eros daiteke.»	(16)

mortu 'hila'	«Kaia egundo baino mortuago egon zen egun batzuetan.»	(354)
motots 'ile multzo bildua (moño)'	«Hamalau gizon biluzik, bele ile luzea mototsean bildua, bakoitza bere azken botilaren batekin...»	(118)
muker 'zaputza, mesfidantzakoa'	«...plater eta liburu hauen artean ezkutaturik disimuluan ibili zela zoriona deitzen den animalia izu eta muker hori.»	(94)
murutzar 'horma sendoa, harresia'	«Ia berrehun metrora izango da, murutzar erromesak sortuko dira uretatik...»	(282)
mutilaren hazteko modua! 'zein handia hazi den!'	«'Hau da hau mutilaren hazteko modua! »	(256)
nahiera 'bere gogara'	«Hitz jokoak nik egitea da seguru asko gutxien gustatu zaiona, berak bai nahieran eta zigorrik gabe erabiltzen dituen arren.»	(98)
nahinora 'edonora, noranahi'	«Gizona etxera etortzen hasi zenetik Goio libreagoa zen nahinora joateko, Zoaz kalera gura badozu lakoak entzuten zituen estreinakoz.»	(35)
narrastasan 'dorpezia'	«'Bi-mila, e-kain-aren he-mere-tzia', irakurri du umeak, irakurtzen ikasi berrien narrastasanarekin .»	(46)
nasa 'kaia'	«Beheko aldeko nasa hartu eta Harriandi barreneraino heldu zen...»	(35)
nazkante 'nazkagarria'	«...behin Clemente Lopez nazkantearekin joan zen.»	(251)
nerabe 'adoleszentea'	«...ez du ahotsik egingo, baina gero bere auhena entzungo duzu, elurraren boza nerabearen modukoa izango da, eta orbelaren modukoa...»	(362)
niagara 'parrastada, piloa'	«Jaiki, irratia piztu eta eguneko albiste niagara entzunez egon naiz ia ordubetez.»	(28)
nodo 'Francoren erregimenaren informatiboa'	«Orduan argia amatatzen zen. Eta nodoa hasten zen sala ilunean.»	(317)
nondik nora 'zein lekutan'	«'Nondik nora ibili zara! Bazter guztiak errekistatu ditut eta zure bila!」»	(288)
nortara egin '(umeak) noren antza hartu'	«On hutsa da gainera eta loti samarra. Honetan ez dakit nortara egin duen: aitatar edo amatara, biok zein baino zein ibiltzen garelako terreno horretan.»	(92)
nostromo 'sobrecargo'	«Uhartera errekaladan heldu orduko, nostromoak tripulazioa bilduko du, saihestu beharreko arriskuen abisua emateko...»	(244)
oguzi 'ahoskatu'	«...dio Imanolek bere euskaramoduan, 'ze ezin dabe hitz hori osorik oguzi ...」»	(60)
oilaur 'larruazaleko koskol handia'	«...laugarrena errepikatzen ari zena, belaunburuak oilaurrez beterik zituena.»	(127)
oinordetutako 'heredentziaz hartua'	«...asaba zaharregandik naturalki oinordetutako ohitura balitz bezala.»	(111)
okerka 'zabuka, alderoka'	«...bidean, hazi eginen dira amildegi arteko harkaitzak, zitaldu horma garai arteko ataka sakonak. Han joanen zarete denak okerka , bidea ezin arteztuz.»	(117)
olana 'estaltzeko oihal sendoa, toldoa'	«Dendaren olanaren aterpean, kazkabarraren txinpartak eta haizearen marrumak entzungo dituzu...»	(326)
olarro 'olatu biziak'	«Haize min eta zakarra egingo du eta itsasoak gogor jasoko ditu olarroak eta fumetak.»	(165)
omeleta 'tortilla'	«Eta gosaltzen zaudetela, pinguino arrautzen omeleta goxoa, enbarkazio bat helduko da Deception uhartetik.»	(265)
on hutsa 'on-ona'	« On hutsa da gainera eta loti samarra. Honetan ez dakit nortara egin duen: aitatar edo amatara, biok zein baino zein ibiltzen garelako terreno horretan.»	(92)
ondo 'samarrak, nahiko'	«Eta Feliperen seme-alabak ondo zumaldetxoak aterako zitzaizkion.»	(332)

oniriko 'ametsetakoa'	«Eta argazkietan, zinean eta telebistan hainbeste aldiz ikusitakoa, benetan so eginik, ia onirikoa , ia erreala irudituko zaizu.»	(230)
ontsu 'ontasunez betea'	«Uhinek, orain beltzago eta itsuago, barrako eta moilako harri berdotzak eta baporeen saihets ontsuak jotzen zituzten.»	(152)
orbain 'zauria sendatu osteko marka	«...amak hartu zion eskua eta zauri haren ezpain josiak laztanarazi zizkion, eta orbaina leuna iruditu zitzaion.»	(42)
orbel 'hosto iharren multzoa'	«...ez du ahotsik egingo, baina gero bere auhena entzungo duzu, elurraren boza nerabearen modukoa izango da, eta orbelaren modukoa...»	(362)
ordu txiki 'goizaldeko ordu bata, ordu	«Gaueko ordu txikietan Andonik bakarrik utziko zaitu logelan...»	(116)
orduko 'baino lehen'	«Eta orduak geroago oskorria agertuko da, iluntzea orduko , oskorri ikaragarri gorria ostertzean...»	(159)
orpo 'oinaren atzeko aldea'	«Malekoirantz joanen zara, txakurtxo orpotik daramazula.»	(145)
ortutsik 'ortozik, oinutsik'	«...eta ni ohe batetik bestera arineketan ortutsik , galtzetinok harrapatu arte.»	(132)
ortzimuga 'zerumuga'	«Hegosortaldean ortzimuga eginez luzatzen den terraza zuri zuria ikusiko da...»	(282)
ospel 'hotza eta umela, desatsegina'	«Pasillo ospeletik barrura sartuko zarete ilunetan, luzaroan joanen zarete, patio borobileraino.»	(183)
ostendu 'ezkutatu'	«Oraindik ere begira nago, eta ontzi triste hura ikusten dut ostentzen ...»	(405)
ostera arte 'gerora arte'	«'Agur, Esteban, ostera arte , esanen diozu ia oihuka.»	(121)
ostertz 'ortzimuga, zerumuga'	«Eta orduak geroago oskorria agertuko da, iluntzea orduko, oskorri ikaragarri gorria ostertzean ...»	(159)
ostetasun 'multzo itxura'	«...hara hor beheko sua, tigre disekatua, laratza, malboro paketea, hauspoa, betamax, dena nahastean eta ostetasun nabarmenean.»	(53)
otu 'bururatu, iruditu'	« Otutzen zait begi lausoz so egiten diogula denari, gure bizimoduaren argitasuna eta erabakikortasuna azalekoa dela eta gutako bakoitza mundu zarratua dela...»	(95)
pal pal 'hots-hitza: plasta-plasta'	«Ontzigainera irtengo zara. Abante librean joango da pal pal enbarkazioa.»	(228)
palenke 'zeremoni gunea'	«'Guretzat edozein leku duk palenkea !' dio Armandok.»	(26)
panga	«...70 kordoba ordaindu dut Managuetatik El Ramara autobusa, 120 kordoba El Ramatik Bluefieldsera panga .»	(16)
papar 'bular aldea'	«Eta haizeak uhinen paparra eta gandorra altxatuko ditu, ufaka, eta aire kolpeek behelaino antzera jasoko dute ura ontziaren gainetik.»	(200)
par-par 'txorrotadaren hotsa'	«...hurreratzean, entzun zuen behiaren apatxa lurrean eta esne epela par par erortzen metalezko kantinera.»	(258)
preterito 'iraganekoa'	«Ez diozu erantzungo eta bere oroimen preteritoaren erakusketarik egin gabe aldatuko du gaia Andonik...»	(115)
profitatu 'baliatu, aprobetxatu'	«Txinoek hezi egiten dituzte, ubarroien arrantzarako erraztasuna profitatzeko .»	(249)
puniko 'kartagotarra'	«Gure artean gerra punikoak hedatzen ziren halako batzuetan, alde batekoak erromatarrak eta besteak Kartago defenditzen...»	(239)
puxika 'genu maskuria'	«...alkandora apur bat zabalduz zutituko da, eta orduan ikusiko duzu puxika . Maskuri horia sabel gainean lotuta, heriotza puxikaz joka helduko balitz	(140)
sabai 'lastategia, mandioa'	«Baserriraino eraman eta ahalik eta belar sikurik gehiena sartu behar zuten sabaira .»	(100)

sagailo 'itsas mugimendu bortitza'	«...izotz zatiak dantza zoroan ezarriko ditu itsas sagailoak , behelainotan igarriko denez.»	(344)
saihestu 'ekidin, itzuri egin'	«...gure fatu propioaren kurba bakar halabeharrezkoa saihestu ezin izan arren.»	(308)
saldo 'multzoa, taldea'	«...arestiko basamortu orain bai belarrez joria miresteko, behi saldoak muuuka larrean, eta kontaezinbesteko izarrak ere miresteko...»	(320)
sama 'idunean, kolkoan'	«Gero toaila saman irten zen komunetik.»	(78)
sarde 'lau puntadun tresna'	«...idiek ardi-larrua buruan, aittitte painelua buruan, auzokoak eskuarez edo sardez ekinean.»	(100)
sargori 'bero-beroa'	«Harrituta begiratu dut kanpora, guaiaba garauak haginaren artean nabaritzen, eguzki egun sargoria ikusteko.»	(214)
saski 'otzara'	«...alboan, hiru oilo saskian , elkarren kontra, luma multzoa dardaraka, burua hegalpean gordeta, dandarra gora, uzki uzurtu eta arrosa kolorekoak agerian.»	(16)
sistole 'bihotzaren uzkuradura fasea'	«...hila izaraz beztitzen den moduan, eta ez da itsas bihozkadarik izango gehiago, ez sistole ez diastolerik.»	(344)
sorginbelar 'lore mota'	«...putz egiten zuten umeek haizearen erraldoiak balira lez, sorginbelar buruaren ilaje urdina sakabanatzeko.»	(332)
sorginorratz 'lorea mota, putz eginez barreiatzen dena'	«Narratzailea sorginorratzen bizitza laburrari buruz ari da...»	(224)
sortu 'irten, agertu'	«...luzean desagertuko zen urpean, gero ilea buruaren inguruko uretan zabaldua sortzeko ...»	(386)
sotabento 'haizearen kontrako aldea'	«Barlobento haizearen aldea zen, afrontuko banda. Eta beste aldea, haizea jasotzen zuen aldea, sotabentoa edo haizebea deitzen zen.»	(191)
sulamena 'sugar ahula'	«Bi kandela piztu ditugu eta su lamena argitasuna hegalka hasi da mahaiaren gainean...»	(410)
sumatu 'igarri, nabaritu'	«...haien aurpegietan Jainko gogaituaren keinua islatzen zela sumatu zuen.»	(34)
tagalo 'Filipinetako talde etnikoa'	«'Adarra jotzen ari zara?' esan zuen Don Patriciok seriotasun tagaloarekin .»	(292)
talaburdina 'taloa egiteko burdin xafla'	«'Hemen dugu talaburdina .!»	(217)
tanbutxu '?	«Enbarkazioaren tanbutxutik zuen ikuspegia estua zelako...»	(351)
tarraxa 'arrastaka, tatarrez'	«Kumea eramaten baduzue, ama atzetik etorriko da, bere kexu kantu nekatuarekin, tarraxa ...»	(360)
tirain 'korrontea'	«Baina Juan Bautistak ezin izan zuen batela lortu, eta igerian egiteko tirain handia zegoen.»	(73)
toleta 'arraunari eusteko ziria'	«Orduan ikasi nuen, baita ere, zer den ateko banda eta zer lehorreko banda. Eta toleta , eta broga, eta estropua, eta tosta.»	(191)
tope egin 'talka egin'	«...Goioaren begiek erretratuko haren begirakune artezarekin tope egin zuten...»	(105)
tortoloxa 'abereen astragaloa, hezur berezia'	«Goioek bere haragi zatia jango zuen gero, hiltzaileen artean, eta tortoloxa gordeko zuen.»	(257)
tosta 'txalupetako ohol horizontala, eserlekua'	«... tostan arnasestuka, han hondartza bazterrean eguzkipean gilaz gora irribarrez eta esamesaka zeuden neskengana zelan hurbildu asmatu behar	(70)
trenka 'abrigua'	«Errege haiek trenka berde bat ekarri zidaten azkenean.»	(256)
troka 'zulo sakona'	«Hori guzti hori trintxera izan zen, han goiko Barrankutik beheko troketaraino .»	(102)

ttapa-ttapa 'urratsen hots-hitza'	«Andrea bere sonbreirutxoarekin, kipea bizkarrean urrundu eta ttapa-ttapa pauso arinka.»	(80)
txaktxatu 'murtxikatu'	«'Orain nire kokatxoa txaktxatuko dut,' esango du beste batek...»	(119)
txakurbelarria egin 'orriaren ertza doblatu'	«...iburuan irakurri dut gizakiak duen behar nagusietako bat maitatua izatekoa dela, eta orrialde horri txakurbelarria egin diot.»	(302)
txantxo 'mozorroduna, bereziki	«Erriberako arboletan ahate txantxoak eguzkitan lehortzen dira...»	(17)
txatal 'puska, zatitxoa'	«Aspaldian han utzitako paper txatala , utzi zuen zirrikitian bertan topatu eta itzuli zen.»	(402)
txikota 'soka muturra, soka puska'	«'Eman txikota! ' esan zidan Juan Bautistak gero, batel barrura salto eginda.»	(189)
tximaluze 'zapa, ile luze gaizki orraztua'	«...eta gazte ilehori tximaluzea izanen da...»	(112)
txinparta 'kazketazoa, kolpea'	«Dendaren olanaren aterpean, kazkabarraren txinpartak eta haizearen marrumak entzungo dituzu...»	(326)
ubarroi 'itsasoko hegazti beltza'	«Gero, goroldio bila hasiko zarete harkaitzean gora, ubarroiak eraso arren.»	(248)
ubel 'morea, iluna'	«Bugainbilearen lore zurixka eta ubelak ikusten dira...»	(55)
udare 'madaria'	«Ate batzuk harantzago bonbilla bat zegoen, ergia ematen. Zain gorri ahul bat kristalezko udarean .»	(152)
ufaka 'putzaldi gogorrek eginez'	«Eta haizeak uhinen paparra eta gandorra altxatuko ditu, ufaka , eta aire kolpeek behelaino antzera jasoko dute ura ontziaren gainetik.»	(200)
ufaldi 'putz kolpea'	«...mutiko guztiek ikasi nahi zuten txistumodua (...) hatzak mihiaren gainean edo (...) mihia sakatuz, ufaldi lastimosoak besterik sortzen ez zituztela.»	(70)
uher 'lohia, nahasia'	«Ura epela da eta uherra , hotzitzen ari den zopa bezalaxe.»	(44)
uhin 'olatu'	«Eta izarak, haizearen apatxek astindua, bi makilaren artean lotutako uhina ematen du.»	(27)
uluka 'uhuriaka'	«"Txakurrek jende arrotza izutzea zaunka lortzen ez dutenean, orduan uluka hasten dira..."»	(112)
umel 'hezea'	«Eta ni atepeko alfonbra gogoan, Bluefields umeleko zapata bustientzako ehun baldartu hura.»	(27)
urazal 'uraren gainaldea'	«...urpean desagertu da orain, eta burbuila batzuk utzi ditu urazal barean, eta burbuilak ere laster ezabatuko dira ilargiaren jabegoa ematen duen ur	(21)
urdinduta 'zahartua'	«Eta hor doa sukaldera, Andoni, ilea urdinduta , zahartua iruditut zaidana.»	(81)
urtzaldi 'urtze sasoi'	«Itsasertza urtzaldian izango da oraindik eta behin eta berriro entzungo dira eztandak, ez urrunegi bataila latza agituko balitz bezala.»	(286)
urune 'irina, uruna (bizk.)'	« Urune esan du Arantxak, Talue esneagaz...»	(217)
uzkur 'burumakur, mesfidati'	«...Clemente heldu zen unean, uzkur joan zen oholtzaren gainetik mahairaino...»	(240)
uzkurtu 'bildua, estutua'	«...hiru oilo saskian, elkarren kontra, luma multzoa dardaraka, burua hegalpean gordeta, dandarra gora, uzki uzkurtu eta arrosa kolorekoak agerian.»	(16)
xaxatu 'erasora bultzatu, animatu'	«...Goio sabelaren gainean eseri eta ukabilka hasi zitzaidan, inguruko aurpegi guztiek xaxatzen zutela.»	(270)
zabuka 'alboka, alderoka, balantzaka'	«Goizaldeko orduetan zehar hainbat berbabide egin eta logalearekin zabuka hasi nintzenean, baietz esanez, Andonik euskal ganbarara eraman ninduen.»	(84)

zainoratze 'zimikoa, atximurkada' ?	«Goio atsegin itsasoan jitoan zegoen, hariak eta bat-batean zainoratze eta barru kolpe goxoa sentitu zuen arte...»	(372)
zakar 'desatsegina, batere leuna ez dena'	«...antzina, oso antzina, eskolarako jaikitzeo agindua ematen ziguten tik tak zakarren modukoa»	(212)
zanga 'kuneta, karkaba'	«Larre zabaleko zanga luzea saltatu eta, alboan iratzea eta sasia izan arren, pinu orriak alfonbraren modukoa eskaini zion.»	(100)
zangalatraba egin 'zangotrabatu'	«'Penalti!' oihu egin zuten ia aho batez Emilio erori zenean, Inazitok zangalatraba eginda .»	(382)
zapal-zapal 'aplastatua'	«Muturra leihoan, sudurra zapal zapal , autoak istripuaren ondoren akordeoiaren moduan ikusiko nituelakoan.»	(255)
zapparro 'potoloa'	«Zer, gure zapparro denborak gogoratzen dituk?»	(114)
zarpail 'itxura zatarrekoa, hondatua'	«Janzten zuen arropa zahar eta zarpailarekin , nazio derrotaturen baten zutoihala ematen zuen.»	(169)
zedarritu 'iragazi'	«...eta zulo horretatik eguzkiaren errainuak zedarritu gabe sartzen dira, eta minbizia eragiten dute.»	(373)
zerrakin 'egur birrina'	«Hara hor kaoba enbor sendoak esperoan, zerraren alboan zerrakina pilatzen den artean...»	(17)
zerrenda 'icebergaren horma ertza'	«...eta kanoi hotsa egiten dute izotz zati handiek zerrendatik erortzean, albotik pasatzera ausartuko litzatekeenari mehatxua eginez.»	(276)
zeuretzat egiten hasi 'lanarekin bizitza ateratzen hasi'	«Ni ez naiz betiko izango eta, lehenago ere esan zion amak, Zeuretzat egiten hasi beharko duzu.»	(387)
zilarbizi 'islatzen duen aldea'	«Alde batean ispilu bat zegoen, zilarbizi a akuariorantz.»	(316)
zintasunez 'fideltasunez'	«Gero, beren ibilera jarraituko dute, eztabaiaezinezko zintasunez ...»	(261)
zipote 'tripandia, potoloa'	«Sukalde ilunetik zipote bat agertu da ezari-ezarian, beltzarana, oinutsik.»	(18)
zira 'euritarako '	«...ama heldu orduko, zira jantzi eta Kaioarriantz joan zen.»	(273)
ziratu 'garbia, distiratsua'	«...katilua ezpainetara eramaten zuen bakoitzean, kafesnean hurrupaka edanez, Goiok koilara sakatzen zuen oihal ziratuko loreen kontra.»	(79)
ziraun 'suge antzekoa'	«Eskua masailera eraman eta belar likatsua ukituko duzu, ziraunaren modukoa.»	(204)
zirimola 'erauntsia, ekaitz indartsua'	«Uretan zurrunbiloa entzuten da eta zirimolak , bi kaiman bata bestearekin borrokan.»	(21)
zirin 'biguna eta etengabea'	«...arrantzaleek bokarta adurra deitzen zuten auri zirinarekin .»	(332)
zirkinka 'mugimenduak egiten'	«Garabi handien besoak ontzi merkanteen gainean makurturik zirkinka ari dira, zamak deskargatzen edo kargatzen.»	(44)
zirrikitu 'bitartea'	«...Juan Bautista gilaren gainean arrelepo jarrita hasi zen, espatula erabiliz, zulo txikiak eta zirrikituak betetzen.»	(401)
zirrindola 'metalezko uztaia edo eraztuna'	«Buda Amandrea ematen du galipotezko ama edo amama dirdaitso horrek, koloretako painelua buruan eta zirrindola doratuak belarrietatik dilindan.»	(45)
zizpa 'su ahokadak'	«Pum pum pum entzuten zen, eta su zizpak ikusten ziren.»	(356)
zohardi 'argitasunez betea, zeru garbia'	«Eguraldi goibela iragarriko da eta, gau lasai eta zohardiaren ondoren (...) hego haize hozkirri batek joko du.»	(157)
zorrotada 'txorrotada'	«Tabernaria erron botilarekin itzuli zen, kafera zorrotada bat botatzeko.»	(153)

zuaker 'gilatik irteten den pieza'	«Eta erroak? Ez duzu errorik izango, ez badira enbarkazioaren altzairu eta plastikozko zuaker eta eustarriak.»	(160)
zumaldetxo	«Eta Feliperen seme-alabak ondo zumaldetxoak aterako zitzaizkion.»	(332)
zurbil 'kolorgea, zuria'	«...eta patioko ur putzuak izoztuta topatzen genituen goizargitze zurbiletan .»	(268)
zurkaiztu 'inkatua, tinko sartua'	«Hor izango dira oraindik hiria izan zitekeenaren hezurdura idortuak, moila zurkaiztua , burdinazkoa eta harrizko eraikin hondatuak...»	(228)
zutoihal 'estandartea'	«Janzten zuen arropa zahar eta zarpailarekin, nazio derrotaturen baten zutoihala ematen zuen.»	(169)